

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko apirilak 8 - 1224. zenbakia

TXIRRINDULARI ONENAK ETXE ONDORAINO DATOZENEAN

Toribio Etxebarria, 1

EUKI
inmobiliariak

20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan



bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com

EIBAR-ORBEA
Haurreskola

B. Sarasketa, 11 / 943200384
orbea.eibar@haurreskolak.eus

jaso eta entregatzeko
ORDUTEGIA 14:00-15:30

Apirilak 11 eta 26
ATE IREKIAK 17:00-19:00

AMAÑA
Haurreskola

Artegieta, 6 / 943127145
amana.eibar@haurreskolak.eus

ARRATEKO ANDRA MARI
Haurreskola

J.A. Iturrioz, 5 / 943202247
arrate.eibar@haurreskolak.eus

MATRIKULAZIOA APIRILEAN:
IRAILEAN HASTEKO



Eibarko
Haurreskolak

IZEN EMATEA
Eskaerak online eta aurrez-aurre entregatzea
Apirilaren 11tik Maiatzaren 9ra
— PIZKO ASTEAN ITXITA —



...aurten bai...

maiatzak
ZAPATUA 21

Urkizutik Untzagara
12:00 – 14:00

Izan zaitez zu ere tantan!

tantanez tantan

Jarraitu gaitzazu!



22. Korrika barixaku goizean pasatu zen Eibartik, 09:30ak bueltan. Euskararen indarrak eguraldiak ezarritako oztupo guztiak gaintu zituen eta bidean izandako euri eta txingorrek ezin izan zuten eibartarrek zuten Korrika hartzeko ilusioa zapuztu.

Deparkel elkarteak 2003an hasi zen lehen pausoak ematen Debabarrena eskualdean Parkinson gaitza dutenei laguntzeko asmoz. Eibarren dute egoitza, Ardantza kalean. Datorren astelehenean, apirilak 11, Parkinsonaren nazioarteko eguna ospatzen da, eta data hori baliatu dugu elkartearen nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko. DEPARKEl elkarteak idazkaria den Nahiara Muguerza eibartarra elkarriketatu dugu.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

kunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

CyclingTips

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

8.150 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tartekak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Datorren astean ez da alerik izango

Aste Santua dela-eta, apirilaren 15ean ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea hilaren 22an, hurrengo barixakuan, jasoko duzue betikoriari jarraituz.

Erredakzioa

Astean esanak



Ari zara hitzaldi bat entzuten. Ikusten duzu gehiengo nagusia emakumeak direla, eta bertaratutako gizonak ez direla ehuneko hamarrera heltzen. Bukatzen da hitzaldia eta, galde-erantzunentzako tartea zabaltzean, seguru gizon batek eskatuko duela lehen hitza, baita bigarrena ere. Kasu horretan emakumea da hizlaria, emakumeak antolatzaileak, entzuleen gehiengo. Bada lehenik hitz egingo duen gizonak ez du ikasitako zerbaitek eskertuko, ez du galdera soil bat egingo... Eskua altxatu duen gizonak irakatsi nahi du, berak besteek baino gehiago dakiela frogatu, are hizlariak esan duena baliatuta. Gizonak modu horretan izan direlako heziak, lidergoan, artaldearen buruan egon behar dute, agintean.

ARANTXA URRETABIZKAIA, idazlea

Hego Amerikan bada kolibri espezie bat heldutan, beste animalia askotan gertatzen den bezala, arrek eta emeek itxura desberdina dutena. Hegazti gehienetan gazteek eme helduen tankera dute eta, helduean, arrek beste lumaje bat hartzen dute, normalean koloretsuagoa eta deigarriagoa. Kolibri horietan, baina, alderantzizko gertatzen da: gaztetan har helduen antza dute lumajea eta, helduean, emeek hartzen dute bestelako lumajea. Ez guztiak: emeen %20k arren itxurari eusten diote. Bada ar itxura duten emeek jazarpen txikiagoa jasaten dute. Hain zuzen ere, arrek dira jazarleak, eta eme arrunten aurka erabiltzen dute indarkeria, jana eskuratzeko. Ar-itxura duten emeek, berriz, ez dute eragozpenik arrek adina jateko. XXI. mendean ere, emakumeek sinatutako artikulu zientifikoek aukera gutxiago dituzte aldizkari ospetsuetan argitaratuak izateko, eta aipamen gutxiago jasoko dituzte. Hautespene naturala akaso?

ANA GALARRAGA, zientzia kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera


OGIZURI → Damaskinatzaileek ogi zuriaren mamia gasolina eta olioarekin bustita erabiltzen zuten piezak eta materiala garbitzeko. “Ni hasi nitzanian, ez jeuan ogi zuririk orduan, gerra ostian. Orduan ogi zurixa kontrabandokua zuan. Ta egitten juen ogi zurixa, espeziala damaskinadoriendako, piezak garbitzeko. Eitten juen... espeziala eitten juen, bollotxuak. Baiña rasionauta, e? Damaskinadoriendako. Gu juaten giñuazzen Estaziño kaleko panaderixara, Justo Larrañaganera. Hortxe erosten genduan ogixori, ogi zurixa; ogi txikixa, piezak garbitzeko. Ha ta olixuakin, edo gasoliniakin..., piezak garbitzeko erabiltzen genduan; azkenengo zera emoteko. Onena haxe dok, ogixa. Mamiña erabili eta azala jan!”

1955

Esperanto klasea

Plazaolak 1955eko abenduaren 15ean egindako argazkian, ezkerrean, Santiago Arizmendiari ikus dezakezue.

Barinagako Iturbe baserriko semea Torbio Etxebarriaren laguna izan zen. Beste batzuekin batera, esperantista taldea sortu zuten. Eibarko Klub Deportiboan aritzen ziren Zamenhof-ek asmatutako hizkuntza beste batzuei irakasten.



Farmaziak

BARIXAKUA 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 9
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
DOMEKA 10
EGUNEZ Mendiuetueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 11
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 17
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 21
EGUNEZ Mendiuetueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI , 2022an, Mendiuetueta (Urkizu, 6)

Hildakoak

- **Clara Rodriguez Leon**. 92 urte. 2022-03-25.
- **Esteban Gurrutxaga Ibargutxi**. 61 urte. 2022-03-28.
- **Hilaria Azkune Uranga**. 86 urte. 2022-03-30.
- **Isabel Luengo Mancebo**. 62 urte. 2022-03-31.
- **Txomin Martinez Cervino**. 77 urte. 2022-04-1.
- **Gloria Lasa Gisasola**. 78 urte. 2022-04-2.
- **Enrique Arias Vitoria**. 85 urte. 2022-04-5.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekueta	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Mankomunitateko kide diren Eibarko Udaleko lau ordezkarietatik hiruk egin zuten berba. SILBIA HERNANDEZ

Mankomunitateak Eibarren ematen duen zerbitzuarekin haserre

Eibarko Udalak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean dituen ordezkariak prentsaurrekoa eman zuten aurreko astean, erakunde horren kudeaketarekin konforme ez daudela esateko. Udaleko lau zinegotzi dira Mankomunitateko Batzarreko kide eta horietako hiruk egin zituzten adierazpenak. Ana Telleria, Alberto Albistegi eta Pedro Escribano zinegotziek salatu zuten, “Eibarko kaleen garbiketa eskasa da eta hondakinen gaikako bilketaren portzentajeak geldirik daude”.

Telleriaren berbetan, “gainerako eibartarrekin bat gatoz Mankomunitatearen kudeaketa -EAJk presiditu baina lideratzen ez duen erakundea- Eibarri eskaintzen dizkion zerbitzuetan nabarmen hobetu

daitekeela esatean, eta ez dagoela Udalak urtero ordaintzen duenaren mailan (5 milioi eurotik gora)”.

Albistegik gaineratu zuenez, “Eibar ez dago garbi, eta atzean gertatzen ari gara inguruko beste herri batzuekin eta Gipuzkoako gainerrako eskualdeekin konparatuta. Erakundearen Lehendakari eta Mankomunitateko Gerentziari lidergoa falta zaie, ez dute lan egiten norabide argi batekin, ezta zerbitzuak hobetzeko helburuak lortzeko ere, eta planifikatzeko ez dute inolako gogorik erakutsi”.

Mankomunitatearen erantzuna

Udalak Mankomunitatean dituen ordezkariak egindako adierazpenak “desegokitzat” jo eta berehala erantzun zieten. Iosu Arraiz Mankomu-

nitateko ordezkarien arabera, Arcadio Benitez sozialista Mankomunitateko presidente zela, 2013tik 2019ra bitartean nabarmen hobetu zen hondakinen gaikako bilketa, %29tik %54ra pasatuz; 2020an eta 2021ean, berriz, birziklatze-tasa % 55,26 eta % 55,05-ekoa izan zen, hurrenez hurren. Gauzak horrela, helburu gisa onartuta dagoen %70era ailegatzea oso zaila ikusten dute.

nitateko presidenteak eta Asier Lekube kudeatzaileak harrigarritzat jo dute “Mankomunitatean eztabaidatu gabe, prentsaren bidez oinarriak gabeko kexak azaltzea”, are gehiago horrelakoetarako beste bide batzuk daudenean. Gauzak horrela, hainbat gauza argitu nahi izan dituzte: “Are harrigarriagoa egin zaigu Eibarko alderdi sozialistako ordezkariak egindako kexak kale garbiketaren ingurukoak izatea; izan ere, martxoaren 30eko batzarrean haien erabaki ezak utzi baitzuen zehaztu gabe urtarriletik hona hiru saiotan lantzen ibili garen bide-garbiketa zerbitzua hobetzeari buruzko puntu bat”. Arraizen berbetan, “kexak hauteskunde kanpainaren aurretik etortzea ez da kasualitatea”.

Bestalde, Udalak ez diola 5 milioi euroko ekarpena egiten Mankomunitateari, 1,6 milioi eurokoa baizik, argitu dute, kale-garbiketarako Mankomunitateari zein zerbitzu eta baliabide kontratatatu udalerrri bakoitzak erabakitzen duela gogorarazita.



“elkar-EKIN Lanean” diplomak banatu dizkiete trebakuntza jaso duten 48 lagunei

Egoera ahulean daudenen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzen duen “elkar-EKIN Lanean” programaren diplomak banatu zituzten aurreko astean Debegesan, Debarreneko Garapen Agentzian. Programan guztira 19 emakumek eta 29 gizonek hartu dute parte eta trebakuntza 2021eko urritik 2022ko martxora bitartean egin da.

Debegesatik adierazi dutenez, “programa honetan prestakuntza eta akonpainamenduko bi ibilbide egin dira, guztira lau pres-

takuntza espezialitate desberdin biltzen dituztenak, besteak beste, ibilgailuaren pintura, elektrodo estali bidezko soldadura eta fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak. Aipatutako ibilbideetako bat, ‘Eraikuntzako estaldura arin eta teknikoaren oinarriko eragiketak’ izenekoa, hain zuzen, emakumeei zuzendutako ikastaroa izan da”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debarreneko udalek finantzatzen dute Debegesak kudeatzen duen programa hori.

Euskal gehiengo sindikalak lan istripuen kontrako kontzentrazioa egin zuen

Aurreko astean Azitainen gertatu zen laneko heriotza salatzeke, euskal gehiengo sindikalak deituta kontzentrazioa egin zuten aurreko eguenean Azitaingo industriadeko errotondan. Handik metro gutxira gertatu zen azken lan istripu hilgarria, langile batek altueratik erori ondoren jasan zituen zauri larrien ondorioz. LAB sindikatuak berriz salatu nahi izan du, “segurtasun ikuspegitik, inork ez duela ikuskatzen obretan lanak behar bezala egiten direnik, eta altueratik gertatutako erorikoen ondorioz hildako langileen kopurua kezagarria dela”.



Babestutako 20 bat etxebizitza berri egingo ditu Eusko Jaurlaritzak Barrena kalean

Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestuak eraikiko ditu Barrena kaleko 34. zenbakian dagoen Rafael Lapeyren eraikin zaharrean. Udala higiezinaren jabeekin ari da negoziatzen eraikina eskuratzeko, eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzari emango zaio, bertan 20 bat etxebizitza eraikitzeko.

Udaletik azaldu dutenez, promozioak udalerrian dagoen etxebizitza babestuaren eskariari erantzungo

dio eta, bide batez, kalea berronertuko du. Horrekin batera, Electrocicloseko bizilagunek, nahi izanez gero, beraien etxebizitzak sustapen honetan egiten dituztenengatik trukatatu ahal izango dituzte.

Ekimen berri hau PSE- EE eta EH- Bildu udal taldeek orain dela hilabete batzuk hiriarren ekialdeko eremua suspertzeko lortu zuten akordioaren esparruan sartzen da, beste hainbat ekimenekin batera.



Legebiltzarrari pentsio publiko duinak bermatzeko erabakiak eskatu dizkiote

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak EAEko Legebiltzarrera jo du, beraien kezka berri ematen duen eskutitza idatzita, “gure pentsioak erreformatu ondoren, pentsio horiek urtero murrizten ari direlako”.

Idatzi horretan salatzen dutenez, “21/2021 erreforman hartutako erabakiek aurreko erreformetan egindako pentsioen murrizketak ziurtatu dituzte, eta gure eskaera gehienak lege horretatik kanpo utzi dira. Pentsioak KPIren arabera errebalorizatzeari dagokionez,

pentsioen erosteko ahalmena %3 murriztu da, 2021ean metatutako KPIaren arabera, eta beldur gara 2022an eta 2023an ere gauza bera gertatuko ote den. Izan ere, Gizarte Segurantzako Ministeriotik datozen azken informazioek kezka handia sortzen digute”.

Diotenez, “une honetan Escrivá jaunaren ardurapeko ministerioen ekimenarekin zehazten ari den erreformaren bigarren zatia erekin ere” ez daukate gauzak hobera egiteko itxaropen handirik. Hori dela eta aurkeztu dute eskaera.

Udaltzainek suzko armak eraman beharko dituzte maiatzaren 1etik aurrera

Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak 2019ko ekainaren 5ean epaitu zuen Eibarko udaltzainek suzko armak eraman behar zituztela. Udala ez da epaiaren alde azaldu, baina orain auto judizial batek hilabeteko epea eman dio udaltzainei suzko armak emateko. Beraz, maiatzaren 1ean hasiko dira pistola eramaten.



AUTUAN

GERRAKO UMEAK IDENTIFIKATZEKO ARRETA ZERBITZUA IPINIKO DUTE MARTXAN MAIATZEAN

Intxorta 1937 kultur elkarteokak Eibarren egongo dira maiatzaren 5ean, 12an eta 19an, 18:00etatik 20:00etara, Portaleko 3109 batzar-tokian (3. solairuan), Gerra Zibilean erbestera (Frantzia, Ingalaterra, Errusia, Belgika, Katalunia, Txile, Argentina eta Mexiko) behartuta joan ziren haur haien memoria identifikatu eta berreskuratzeko asmoz. Lan honetan parte hartu nahi dutenek intxorta1937@gmail.com helbidera idatzi edo 678242031 / 699669205 telefonotara deitu dezakete.



JESUS GUTIERREZEN URRIKO IRAULTZARI BURUZKO HITZALDIA EGO IBARRAREN YOUTUBEN IKUS DAITEKE

Jesus Gutiérrezen eibartarraren "Urriko Iraultza Eibarren: 1934ko urriaren 5eko gertakariak" hitzaldia Ego Ibarrenen YouTube kanalean jarri da ikusgai. Historialariak Armeria Eskolan azaldu zituen Eibarren izandako gertakariak, Ikasle Ohien Elkartearen laguntzarekin antolatutako hitzaldian, Eibar herriaren 675. urteurrenaren harira.





Lehen eguna izateagatik poltsak oparitu zizkieten bezeroei. SILBIA HERNANDEZ

Errebal Plazak bide berriari ekin dio

Errebal Plazako atea lehenengoz zabaldu aurretik, bezperan baserritarren lana aitortzeko ekitaldia

hartu zuen udaletxeko Udalbatza aretoak. Bertan, Udalak eta Debenek Eibarko baserritarren lana



Barixaku goizean zabaldu zuten merkatu plaza berria, Rialtokoa behin-betiko itxi eta gero. Aurrerantzean Errebal Plazia eraikinean egongo dira baserritarrak, Errebal kaletik sarrera duen azokan. Lehen eguna zela eta, piskolabisa eskaini zuten Azitaingo Oinarrizko Lanbide Heziketa Udal Institutuko ikasleek eta, zerbait erosi zutenei, erositakoa etxera eramateko poltsa bana oparitu zieten.

nolakoa den jasotzen duen bideoa proiektatu zuten eta Jon Iraola alkateak euren lanaren garrantzia nabarmendu eta eskertu nahi izan zuten: “Eibarko Merkatu Plaza betidanik izan denaren eta hemendik aurrera Errebalgo espazioa izango denaren ikurra zuek, baserritarrak zarete”.

Oraingoz, Errebal Plazak baserritarren postuekin ekin dio bideari, baina Udalak bete barik geratu diren postu finkoak esleitzeko izapideekin aurrera jarraitzen du, eta horiek ere laster zabaldu ahal izatea espero dute. Oraingoz arraindegia bat zabaltzeko postua da esleitu duten bakarra. Horrez gain, kafe-tegia lehenbailehen zabaldu ahal izateko lanean ari dira eta, ezer okertzen ez bada, Aste Santua eta gero zabaltzeko asmoa daukate.

Bestalde, Errebal Plazia zabaltzearekin batera, Eibarko Arma-gintzaren Museoak “Museoaren leihoa” espazio berria izango du aurrerantzean Errebal kaleko kanpoaldera ematen duen erakusleihoan eta erakusketa txiki bat ipini dute bertan.

ARGAZKI-BILDUMA OSOA



BIDEOAK IKUSTEKO











Dendariak eta erosleak pozik Erosketa-Ibilbidearekin

Aurreko urteetan gertatu den bezala, aurten ere oso harrera ona izan du Erosketa-Ibilbidea kanpainak. ...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta Eibarko Udalak martxan jarri duten kanpaina izan da, jendea Eibarko establezimenduetan erostera animatzeaz gain, erosketa horietan bezeroek euskara erabiltzea ere sustatzeko.

Erosketa-kanpaina nolakoa den hobeto jakiteko, kalera irten gara erosleen eta dendarien iritzia jasotzera, eta Edurne Zenarruza-beitiarekin egin dugu topo lehenik. Kartilla zigiluekin bete du dagoeneko eta jaso du opari-txartela.

Edurnerentzat ez da lehenengo aldia izan, iaz ere kanpainan parte hartu baitzuen. “Kanpainaren helburuekin bat egiteaz gain, data haue-tan oso ondo datorkit opari-txartela jasotzea, urtebetetzeak ditudalako apirilean”, dio pozik.

Bere iritziz Erosketa-Ibilbidea oso ondo dago, baina badu kritika txiki bat ere. “Dendaren batean gertatu izan zait dendariak ez jakitea oso ondo kanpaina honek nola funtzionatzen duen. Egia esan, kartilla jaso nuen tokian oso ondo hartu ninduten eta nire aurrean zegoen erosle bati oso ondo azaldu zioten kanpainaren funtzionamendua. Gainera, eroslea erdalduna izanik, esan zioten gutxienez agurra edo berbaren bat euskaraz eginez gero, abantaila gehiago lortuko zituela. Baina beste establezimendu batzuetan, euskaraz egin arren, ez zidaten pegatina jarri, eta nik eskatu behar izan nuen”, azaldu digu.

Edurnek erosketak Eibarren egiteko ohitura du. “Asko kostatzen zait kanpora joatea”, diosku. “Herriko denda eta dendari gehienak ezagunak dira, eta nahiago dut hemen erosi. Gainera, normalean ia denetatik aurkitzen dut hemen, kanpora joan beharra izan gabe”, gehitzen du.

Aurten, berritasun bezala, erosketak egiteko orduan euskararen erabiler-a sustatu nahi izan da kanpaina honetan eta Edurnek asko baloratzen du arlo hori. “Euskaraz egiten didaten tokietan erosten saiatzen naiz eta Eibarren denda askotan egiten da euskaraz”.

Dendariekin euskaraz

Edurnek bezala, Oihana Berasaluzek ere bete du Erosketa-Ibilbidearen kartilla. “Horrelako kanpainetan parte hartzeko ohitura dut”, azaldu digunez. Horretarako, hamar erosketa egin behar izan ditu eta, guztira, 200 euroko gastua egin. “Ez da oso zaila izan, umeentzat erosketa batzuk egiteaz gain, pare bat aldiz autoari gasolina bota diodalako”, esan digu barrez. Beraz, hamar dendatan erosketak euskaraz egiteagatik, 70 euroko opari-txartela jaso du. “Gasolina-depositua betetzeko beste”, diosku umoretsu.

Kanpainak euskararen erabilera sustatu du, baina Oihanak beti egiten du lehen berba euskaraz denda batetan sartzen denean. “Gero, dendari batzuk ez dakite eta elkarrizketa gazteleraz jarraitzen dugu, baina gehienek euskaraz egiteko ahalegina egiten dute”, diosku.

Oihanak Eibarren egiten ditu erosketa gehienak. “Oso denbora gutxi dudanez, herrian erosten dut. Gainera, dendariak ezagutzen ditut eta normalean nahi dudana aurkitzen dut. Orain seme nagusiari gauza batzuk erosteko arazoak aurkitu ditut, baina bestela ez dut arazorik”, esan digu.

Dendarien begirada

Nuria Murok ‘I love 10 euro’ denda du Estaziño kalean eta, erosleei kartillan zigiluak eta pegatinak jartzeaz gain, horren inguruan informazioa ematen ibili da kanpainan zehar. “Erosle batzuek ez zekiten kanpaina zer zen, beste herri batzuetatik etorri direlako, adibidez; eta, azaldu ondoren, parte-hartzera animatu dira”, diosku.

Bere dendak denbora gutxi darama martxan eta, beraz, Erosketa-Ibilbidea kanpainarekin bat egiten duen lehen aldia izan da. “Kartillak amaitu egin zitzaizkigun. Beraz, badirudi jende askok hartu duela parte kanpainan”, esan digunaren arabera. “Guk ere parte hartu dugu eta herriko beste dendetan erosi dugunean, kartillarekin joan gara”, gehitu du. “Beharrezkoak diren gauzak aurkitzen dituzu herrian eta, horrela, aprobetxatu egin dugu”.

Nuriak euskaraz egitera animatu ditu erosleak, “guxienez agurra edo berba batzuk”, eta salbuespenak salbuespen, ekimena ondo hartu dute.



Erosketak egiteko epea luzatu ondoren, kanpaina hilaren 13an amaituko da



Ezkerreko orrian, Nuria Muro. Eskuineko orrian, goian, Edurne Zenarruzabeitia; eta behean, Oihana Berasaluze. EKHI BELAR



JAIONE YEREGI • Elikaduran eta nutrizioan teknikaria

Dirua aurreztuz osasuna hobetzeko aholku batzuk

Azken urteotan familien erosketak garestitu egin dira, orokorrean gizartearen soldatak ez bezala. Nahiz eta zuzenean ez izan, horrek eragina du gure osasunarengan.

Zer egin dezakegu gure erosketen kostua gutxitu eta osasuna hobetzeko?

- Ez inprobisatu. Erosketak egitera joan aurretik, behar diren produktuen zerrenda egin. Denbora aurrezten laguntzen du. Merkeago eta kalitate hobeko produktuak aukeratzeko laguntzen digu.

- Gose gabe joan erosketak egitera. Bestela behar ditugun elikagaiak baino gehiago eta, ziurrenez, hain egokiak ez direnak erosiko ditugu.

- Menua prestatuta eduki. Asteko erosketak planifikatu. Guzti honetarako asteko menua pentsatu. Osasuna hobetzeko, garrantzitsua da plater desberdinak planifikatzea, behar diren mantengai guztien arteko oreka falta ez dadin.

- Oinarriko elikagai natural eta prozesatu gabeak erosi. Elikagai elaboratuak, kontserbanteengatik, koloranteengatik edo enbasatuak direlako, garestitu eta kalitatea murrizten dute. Ezinbestekoak izango dira gure erosketetan fruta eta berdura freskoak, lekariak, labore edo zereal osoak, arroza, fruitu lehorrak, haziak, olioak eta, kasu bada, arraultzak, arraina eta haragia. Bestalde, saltsa industrialak, snackak, gailetak, goxoak, azukredun edariak, freskagarriak, azukredun esnekiak, hestebeteak... asko garestitzen dute erosketak, eta osasuna okertzen dute.

- Aiton-amonen sukaldera itzuli. Bertako eta garaiko elikagaiak erabili. Ez genuke ananarik edo papaiarik jan behar urtarrilean. Ez delako jasangarria ingurumenaren aldetik eta ez dugulako fruitu tropikalik behar freskatzeko urteko hilik hotzenetan. Sukaldata dezagun gehiago: kalitatean, osasunean eta poltsikoan nabaritu dugu.

- Soberakinak berrerabili: Dena aprobetxatzen ikasi behar dugu. Berdura apur bat sobratu zaizula? Barazki tortila bat egin. Barazkiak baporean sukaldata dituzula? Bihar barazki pure bat egin dezakezu. Arraina erostean, burua eta hezurak erabili botatzen diren porruen zati berdeekin batera zopa bat egiteko.

Gomendio hauek kontuan izanez, urte bukaeran diru eta janari ugari aurreztu dezakegu. Baita elikadura osasuntsuago batez gozatu ere.

"Garrantzitsua da plater desberdinak planifikatzea, behar diren mantengai guztien arteko oreka falta ez dadin"

“Parkinsona daukatenei bizi-kalitatea hobetzen laguntzen diegu”

NAHIARA MUGUERZA • DEPARCEL Debarreneko Parkinson elkarteko idazkaria



Deparkel elkarte 2003an hasi zen lehen pausoak ematen Debarrena eskualdean Parkinson gaitza dutenei laguntzeko asmoz. Eibarren dute egoitza, Ardantza kalean. Datorren astelehenean, apirilak 11, Parkinsonaren nazioarteko eguna ospatzen da, eta data hori baliatu dugu elkartearen nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko.

DEPARCEL elkarteko idazkaria den Nahia-
ra Muguerza eibartarrarekin elkartu gara
nerbio-sistemari eragiten dion gaixotasun
horren inguruko gauza gehiago jakiteko.
**Zenbat urte ditu Deparkel elkarteak eta zer dela
eta erabaki zen eskualde mailako elkarte sortzea?**
Lehenengo pausoak 2003an ematen hasi ziren Mar-
cial del Amo eibartarrari Parkinsona detektatu zioten-
ean. Jesus Astigarraga gure presidentea izandakoa
Marcialen laguna zen eta bien arteko elkarrizketen
ondoren elkarte bat sortzeko ideia mamitzen hasi zen.
Parkinsona gaixotasun degeneratiboa da, eta oso ga-
rrantzitsua da lantzea. ASPARGI Donostiako elkarte
oso urruti gelditzen zela ikusi zuten. 2005ean jarri zen
martxan elkarte beste ezagun batzuen laguntzarekin.
**Elkatea Eibarren dago, Ardantza kalean, baina es-
kualde mailako zerbitzua eskaintzen du.**

Ardantzán baino lehen Ipurua kiroldegian egon gi-
nen. Bi gela genituen han, baina gaixoentzat arazoa
zen Ipuruaraino igotzea. Eibarko Udalak gaur egun
Ardantzán daukagun lokala lagatzea lortu genuen.
Instalazioak gure beharretara egokitu zituzten eta
hemen askoz hobeto gaude. Dena eskura daukagu.
Debarreneko edonorentzako ditugu ateak zabalik.





Astean hiru aldiz joaten dira Deparkel elkarteko kideak Arantzeta kaleko lokaletara. Parkinsonak nerbio-sistemari erasotzen dio. Ondorioz, mugimenduaren kontrola eta koordinazioa nahiz giharren zalutasunari eta jarrerari eusteko ardura duten garuneko alderdietan izaten du eragina.

Eta beste eskualde batzuetatik ere etortzen dira, Elooriotik edo Zornotzatik, esate baterako. Gaixotasuna daukatenentzako bidaiatzea ez da erraza eta erosa izaten, eta horregatik da garrantzitsua horrelako zerbitzuak eskura izatea, norberaren etxetik ahalik eta gertuen. Gehienbat Eibarko jendea etortzen da, herri handiena delako, baina inguruko beste herri batzuetakoak ere etortzen dira.

Zeintzuk dira elkartearen helburuak eta eskaintzen dituzuen zerbitzuak?

Helburu nagusia Parkinsona daukatenen bizi-kalitatea hobetzea da, edo behintzat horretan saiatzea. Gaixoei laguntzen diegu eta baita euren senide eta zaintzaileei ere (askotan pertsona bera da). Aktibitate desberdinak antolatzen ditugu. Astean hiru aldiz etortzen dira, arratsaldean, eta beti egoten dira fisioterapeutarekin eta psikologoarekin, bi taldetan banatuta. Gauza desberdinak lantzen dituzte: fisioarekin jarduera fisikoa egiten dute, pilates adibidez; eta psikologoarekin errehabilitazio kognitiboa lantzen dute. Oso giro ona dago eta ikusi da hona etortzea etxekoei edo zaintzaileei atsedena emateko modu bat ere badela. Hemen oso gustura sentitzen dira, denak berdin samar daudelako. Eta nahiz eta jakin ezin dela sendatu, degeneratiboa baita, eta normalean sintomak

“Parkinsona gaixotasun degeneratiboa da. Aldapa hori ahalik eta lauena izaten saiatzen gara elkartearen”

denborarekin okerrera egiten badute ere, saiatzen gara aldapa hori ahalik eta lauena izaten. Gaixotasuna egonkortzen eta geldotzen laguntzen diegu.

Zeintzuk dira Parkinsonaren sintomak?

Askotan gaixotasunak berak eragiten dituen sintomak izaten dituzte eta beste batzuetan tratamenduak eragindako efektu sekundarioak. Oso sintoma desberdinak izaten dituzte. Ezagunena edo deigarriena dardara izaten da, baina ez da beti gertatzen: badira oso dardar gutxi daukatenak edo oso kontrolatuta izaten dutenak ere. Gaixo askok blokeoak izaten dituzte ibiltzerakoan. Azken finean, gaixotasunak daukana da blokeoak gertatzen direla muskulu- eta neuronamailan, eta horrek sintoma desberdinak eta anitzak

Nahiera Muguerzarekin
egindako elkarrizketa:



izan ahal ditu: hitz egiteko arazoak, giharretako zurruntasuna, mugimenduari ekiteko geldotasuna eta zailtasuna, irensteko zailtasunak... Normalean gaixotasuna 68-70 urterekin diagnostikatzen da, baina 52 eta 40 urteko jendea ere izan dugu gurekin. Harreman etengabea daukagu Javier Ruiz-Martinez Donostia Ospitaleko neurologoarekin eta, berak esaten duenez, Parkinsona gero eta gazteagoengan diagnostikatzen da. Bere ustez, gure elkartearen esaintzen ditugun zerbitzuak oso garrantzitsuak dira. Apirilaren 11n, Parkinsonaren nazioarteko egunean, hitzaldia emango du Donostian.

Zenbat pertsona bizi dira Parkinson gaitzarekin gure eskualdean?

Kalkulatzen da Debabarrena mailan 250 lagun inguruk daukatela gaixotasuna. Elkartetik, hasi ginenetik, 140 pertsona inguru pasa dira. Gaur egun elkartera 16-17 gaixo etortzen dira modu erregular batean hainbat herritik: Ermua, Eibar, Elgoibar, Elgeta, Mallabia, Soraluze, Zornotza eta Elorriotik, eta Debako bat ere etortzekoa da. Bizkaian bi elkarte daude, baina hiriburuan sartzea askotan oso zaila da. Zornotzatik gertuago dago Bilbo, baina errazagoa egiten zaie tren hartu eta Eibarrera etortzea. Eta gure aldetik ez dago inolako arazorik. Zerbitzua emateko gaude, ahalik eta jende gehienari laguntza emateko desiatzen. Pandemiaren ostean jende gehiago daukagu, nolabait esateko, pandemiak azaleratu egin duelako zeukaten arazoa. Pausoa ematea erabaki dute.

Nolako baliabideak dituzue zuen proiektuari eusteko?

Jarduerak egitera etortzen diren bazkideek kuota bat ordaintzen dute, baina horrekin aurrekontuaren zatitxo bat estaltzen da. Hori dela eta, dirulaguntzak eskatzen ditugu eskualdeko Udaletan, Foru Aldundian eta Jaurrlaritzan. Hasieran eskualdeko enpresa askok ere laguntza ematen zuten. Krisiarekin diru kopuru hori murriztu egin da. Gero badaude ekarpenak egiten dituzten herritarrek ere. Gure kezka nagusia finantzaketa izaten da, baina, zailtasun asko edukita ere, aurrera jarraitzen dugu. Parkinsona daukatenentzat tratamendu farmakologikoa oso garrantzitsua da, baina hemen egiten den guztia ere

"Zerbitzua emateko gaude, ahalik eta jende gehienari laguntza emateko desiatzen"

osagarri ona da, zalantza barik. Beraz, gure helburua da erreferente izatea eta hemen egiten denari eustea. **Unibertsitatean irakaslea eta ikertzailea zara eta, aldi berean, Deparkelen lanean jarraitzen duzu hasieratik. Nola hasi zinen eta zer eman dizu elkarteak denbora luze honetan?**

Itsas Biologiako ikasketak amaitzen ari nintzanean lagun batek nire izena bota zuen elkartearen lanean has-teko. Apurka-apurka ikasten joan nintzen eta hemen jarraitzen dut. Gestioaz eta koordinaketaz arduratzen naiz, beti ere beste zuzendaritza-kideen laguntza eta babesarekin. Daniel Conde, Maite Ochoantesana, Felix Arroita, Victor Bilbao eta ni neu gaude gaur egungo zuzendaritzan. Zer eman didan elkarteak? Egiten dudan lanean sinisten dut, benetan merezi du. Egunerokotasunean horrelako gaixotasun batekin bizitzea zaila da eta "engantxe" modukoa sortzen da beraiek zein ondo eramaten duten ikusten duzunean. Hau aurrera eramaten lagundu ahal badut, hemen egongo naiz.

Erroberaz betetako asteburuaren aurrean

Txirrindularizaleak asetzeko moduko bi egun handien aurrean daude. Zapatuan eta domekan, profesionaletan zein afizionatu mailan, txirrindulari onenen jardunaz gozatzeko aukera ezinhobea eskainiko dietelako gure herriak dituen proba horietako antolatzaileek. Eibartarrek gidatzen duten Euskadi Txirrindularitza Antolakuntzaren (OCETA) eskutik Itzulia Basque Countryaren azken etapa biziko dugu biharkoan; etzi, bestalde, Eibarko Txirrindulari Elkarteak prestatutako Valenciaga Memorialaren 51. edizioa izango da jokoan. Biak Arraten amaituko dira.

Gure inguruko errepideek maila handiko etapak hartuko dituzte, aurrez aurre ikusteko aukera eskainiko dizkigutenak. Txirrindularitza munduan hain berezia egin den Arrateko gaina izango dugu, gainera, helmuga. Itzuliaren amaiera hartuko du biharkoan, Eibartik 14:05ean irtenda, zale asko bilduko dituen etapa bereziak.

Ohikoa denez, espero daiteke lasterketa azken egunean erabakitzea, hori izango litzateke normalena. Etaparik motzena izango da (135,7 kilometro), baina baita gogorre-na ere, hain distantzia laburrean 4.000 metroko desnibela duelako. Txirrindulariak bitan igoko dira Arratera eta Elorrieta (188 metro), Endoia (406), Azurki (674), Gorla



(684) eta Urkaregi (344) izango dira beste gainak, Krabelin (578) eta Usartzarekin (559) batera. Elorrietako igoerak bi kilometro eta erdi ditu eta Endoia-koak bost eta

erdi: bien kasuan, batz besteko pendiza %6,8koa izango da. Orain dela hainbat urte “deskubritutako” Azurkikoak dituen bost kilometroetan %7,4koa gainditu beharko dute eta jarraian datorren Gorla, luzeago izanda ere (ia 10 kilometro ditu), suabeagoa ere bada, %5,7arekin. Azitaingo poligonotik joango dira Arrateren bila lehenengo aldiz, Kra-

>>> Etapa biak Arraten amaituko badira ere, herri barruak hartuko ditu kilometro batzuk



EIBARKO BIZIKLETA

TXIRRINDULARITZARAKO GUZTIA
(salmenta eta konponketa)
bizikletak / aldegailuak / osagaiak / erropa / oinetakoak




ANDONI RETENAGA
zure konfiantzazko mekanikaria

10:00-13:00 / 16:30-20:00
ZAPATUTAN: 10:00-13:00

Karmen, 4 andoni@cicllalia.es 943 530 212



ITZULIA EIBARTIK

- 16:20 Azitaingo poligonotik
- 16:25 Krabelingo gaina
- 16:30 Ixuako gaina
- 17:10 Sarrera Maltzagatik
- 17:15 Mendatearen hasiera
- 17:20 Usartzako gaina
- 17:25 Helmuga Arraten


belineraino, lau kilometroko ibilbi-dea osatuz %10etik gorako pendiza-rekin. Urkaregiko gainera igotzeko beste bost kilometro izango dituzte zain, %5era, eta, amaitzeko, Usartzarako lau kilometro eta erdian ia %9ko pendiza gainditu beharko dute txirrindulariek. Etapa horretako esprint bereziak Sorraluzen eta Eibarren egongo dira.

Valenciagan 16 kilometro gehiago Valenciagako etapa bezperakoa baino luzeagoa izango da, 153 kilometro eta erdi gainditu beharko dituztelako txirrindulariek Espainiako Koparako baliagarria den proba horretan. Zailtasun handienak honakoak izango dira: 3. mailako Itziarko (24. kilometroan), Aiako (55.ean) eta San Migueleko (134.ean) gainak eta, bereziki, erabakigarriagoak izango diren 1. mailako Ixuako eta Usartzakoak, etaparen amaieran igo beharrekoak. Ixuakoa San Miguelen aurretik gaindituko dute (120. kilometroan) eta Usartzatik helmugara joko dute zuzenean. Deban kokatuko dituzte etapako bi esprint bereziak eta tarteko helmuga Zarautzen eta Eibarren (Ibar-kurutzen) izango dira.



VALENCIAGA EIBARTIK

- 09:30 Untzagatik Azitainera
- 12:20 Sarrera Maltzagatik
- 12:30 Ixuako gaina
- 13:00 Sarrera Maltzagatik
- 13:10 Mendatearen hasiera
- 13:20 Usartzako gaina
- 13:25 Helmuga Arraten



ANGEL LOPEZ • Eibarko Txirrindulari Elkarteak presidentea

“Streaming bidez jarraitzeko aukera aberastuko dugu”

Domekan Eibarrek jasoko duen lasterketa afizionatuen mailako estatuko garrantzitsuena jarraitzen du izaten. Bertan elite eta 23 urtetik azpiko onenek, indarrak neurtzeaz gain, profesioaletara jauzi egiteko aukera eman diezaiekeen garaipenaren bila irtengo dira.

DV



Probaren Urrezko Ezteiak atzean lagata, zeintzuk izango dira berri-tasun aipagarrienak domekarako? Azken kilometroetarako helikopteroa edo, Amañatik igota, proba zertxobait gogortzearena?

Bi aldaketa horiek izango dira garrantzitsuenak. Hobekuntzat hartzen dugu helikopteroaren proposamena. Amañako igoera herri barrutik pasatzeko asmoz egin dugu, horrela Arratera igotzerik ez dutenek lasterketaz goza dezaten.

Streaming bidez lasterketa emateak zenbateko emaitzak eman dizkizue?

Aurreko urtean kriston arrakasta izan zuen, egun horretan bakarrik 27.000 ikusle izateraino, jarraipen handiarekin. Zuzeneko emanaldian estatutik kanpoko jarraitzaileak ere izan genituen, baita Hego Ameriketako ikusleak ere, hori kontutan hartuta hango eta hemengo ar-teko ordu desfasea. Orain ere zuzeneko emanaldia jarraitzeko lotura

www.clubciclistaeibarres.org web orrian izango da.

25 talde eta 175 txirrindulari izan-go dira Espainiako Koparako balio-garria den proban. Zein talde eta txirrindulari dira faborito?

Azparren, Castello eta Abetxuko aipatu daitezke. Inguruko taldeen artean, Caja Rural, Lizarte, Euskadi Fundazioa, Telco'm... emaitza onak ari dira izaten. Hala ere, lasterketa oso gogorra da; ikusi beharko zelan ematen zaien mendateen artekoak eta nork hartzen duen aurre.

Antolatuko duzuen hurrengo proba Emakumezkoen IV. Eibarko Hiria Saria izango da. Zaila egingo zaizue orduko podiuma hobetzea, ezta?

Noski. Aurten aldaketa izango da ibilbidean, helmuga erdigunean, Toribio Etxebarria kalean, kokatu nahi dugulako. Zaila da iazko podiuma hobetzea, baina goi mailako ziklistak Eibarren izatea nahi dugu.

Bestela, zelako egoera bizi du Eibarko Txirrindulari Elkarteak? Babesle, erakunde eta laguntzaileen aldetik pozik zaudete?

Pandemia egoerak ez du lagundu babesle txikiakin; hala ere, askok gurekin jarraitu dute. Aipamen berezia egin nahi diogu Eibarko Udalarari guran jarritako konfidantza-erengatik, eta gure ideia eta helburuak aurrera eramateko ematen diguten babeserengatik. Eta, neurri txikiagoan bada ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa ere badugu. Hala ere, babesle zein erakunde, handi zein txiki, guztiakin egindako elkarlana eskertzekoa da. **Zer esango zenieke zaletuei? Bazu zeozer eskatzeko?**

Gonbidapena egiten diegu jarraitzaile guztiari, errepidera irtenda ere, zentzuz jokatzeke. Eta ez ahaztu domekako lasterketan izango diren txirrindulariak gazteak direla eta asko eskertuko dutela zaletuen aldetik jaso dezaketan adore guztia.

apirilak 10

(EIBAR-Untzaga / EIBAR-Arrate)



GARAILEA



MENDIA



TARTEKO HELMUGAK



LEHEN EUSKALDUNA



23 URTEKO AIZKO ONENA



SAIATUAREN SARIA



SPRINT BEREZIAK



DEBABARRENAKO ONENA



TALDEKAKO SAILKAPENA



Udaberri Saria (irabazlea)

IV. EIBARKO HIRI
SARI NAGUSIA
EMAKUMEZKOAK

CCE Saria (irabazlea)



San Juan Saria (irabazlea)

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udal Kirol Patronatua
- SD Eibar Fundazioa
- Laurel & Hardy Pub
- Izadi Loradenda
- Oria Sport Wear, S.L.
- Beltran Igogalluak
- Inpratex
- Ikolan Lanaldi
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Pneumax
- Soraluze S. Coop.

- Ruibal
- Neinor
- Manufacturas GES
- Hotel Castillo
- Vitaldent
- Gorla Auto Group
- TAES
- Urkotronik
- Autobuses Dario
- Alkideba
- Ongi Etorri Taberna
- Gastro Gilda
- Eusko Label

- Ixua Hotela
- MTE
- Berkoa
- Oberena Harategia
- Arkupe Gastro Pub
- Larragest Inmobiliaria/Aseguruak
- Guridi taberna
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Kalaka Taberna
- Buenos Aires Taberna
- As Burgas Casa de Galicia
- Casa Cantabria



PERIKO IRIONDO



JORGE ITURRICASTILLO



RAMON BEITIA



URKIATARRAK



Giro bikaina Astelenan jokaturako Euskal Pilota Egokituko finaleran

Eneko Sagarmendik eta Lorea Iribarrek osatutako bikotea nagusitu zen adimen urritasun mailan eta Beñat Lizasok eta German Elkorok osatutakoak irabazi zuen gurpil-aulkiko kategorian. Katedralak hartu zuen jaia erabatekoa izan zen, oso orekatutako finalekin, amaiera bikaina emateko laugarren edizio

honetan 36 parte-hartzaile izan dituen txapelketari. Iribarrek eta Sagarmendik 25-21 irabazi zioten Huegun-Cueto bikoteari. Bigarren finala ere bete-betekoa izan zen eta aurrekoaren emaitza bera izan zuen, orduko horretan Lizaso eta Elkoro nagusitzeko Meunier eta Cabanne baionarren aurrean.

Bar Txokok foball-zaletuaren liga txapelketa irabazi du

Aurreko asteburuan jokatu zen Unben foball-zaletuaren Ligako azken jardunaldia eta oraindik bi partidu jokatzeko dituen Bar Txokok, hala ere, txapelketa irabazi zuen, Durangoren aurrean 3-1 nagusitu ondoren. Horrek argi erakusten du Txokok aurten erakutsitako nagusitasuna. Txapela soinean duela jokatu du bihar eta etzi COVID-arengatik atzeratu egin behar izan zituzten bi partiduak, JMR Tankemans-en eta berriro ere Durangoren kontrakoak. Azken asteburuko emaitzen artean JMR Tankemans-ek Bali Center Sports-i emandako astindua izan zen deigarriena (10-1), Iagobak lortutako lau golekin.

Aipatutako bi partidu horietako emaitzen zain, Bar Txokok 43 puntu



ditu eta atzetik sailkatu dira Garges Garcia (40), Tankemans (34), Ipur Sagardotegia (33), Feredu Bar EzDok (30), America Sport (28) eta Adahi Eraieder (27). Atzera-go geratu dira Chic (20), Durango (17), Bali Sports Center (16) eta Bar Banaka L. Rueda (13).

Arrate Eibar-ek lidergoa lotzeko aukera Ipuruan

Eskubaloiko 1. Nazional Mailako taldeak igoera fasea jokatzeko txartela eskuratu zuen aurreko asteburuan Beti Onak talde nafarrari 34-39 irabazi eta gero. Liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan Fernando Fernandezek mutilek iazko puntu kopurua berdintzea lortu dute dagoeneko eta, hurrengo neurketan Helvetia Anaitasuna sailkapeneko bigarrena gainditzen badute, lidergoa lotzetik gertu izango dira, nafarrak bost puntura daudelako.

Euskal Herriko Ligan jokatzeko duen Arrate Eibar-eko senior mailako lehen taldea, bestalde, erraz nagusitu zitzaion Lema Transit Askartzari Ipuruan (30-15) eta sailkapeneko bigarren postua lortzeko helburua gero eta gertuago dute. Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan Bera Bera hirugarren sailkatuak bi puntu gutxiago ditu eta, donostiarrek Basauri liderraren aurka jokatu behar dutenez oraindik, neurketa hori irabazi ezean Andoni Perezen neskei nahikoa izango litzaieke beste puntu bat eskuratzearrekin. Asteburuan Urdabai Bilboats bisitatuko dute azken fase horren bila.

Helduentzako xake ikastaroa Deporren

Eibarko Klub Deportiboaren xake batzordeak helduentzako hastapen ikastaroa antolatu du maiatza eta ekainean egiteko. Klubeko jokalariek eskarmentatu batek emango ditu klaseak eguen guztietan, 18:30etik 20:00etara, Deporrek T. Etxebarria kaleko 16an duen egoitzan. Ikastaroaren prezioa 30 eurokoa da. Informazio gehiago: xakea@depor.eibar.com eta klubean barixakuetan (19:00etatik 20:00etara).

Natura pertsoneri eta pertsonak naturari hurbiltzeko bainuak

Egoaizia eta Proyde-Proega GGKEek 'Baso bainuak' izeneko egitasmoa egin behar zuten asteburuan Olabeko zelaian, Basona elkar-tearen eskutik. Ibon Sarasola Monzonek gidatu behar zuen praktika eta natura pertsoneri eta pertsonak naturari hurbiltzeko balio behar zuen, Basonatik esan digutenaren arabera. Azken orduan, ostera, bertan behera laga dute, jende gutxik eman duelako izena. Dena dela, aurrerago berriz ere eskaintza egiteko aukera zabalik laga dute.

Bi orduko saioen bitartez, naturara modu sententzial hurbiltzeko aukera izan behar zuten asteburuan Olabeko zelaian 'Baso-bainuak' egitasmoan parte hartuko zutenek. Baso-bainuak naturan oinarritutako ongizate praktikak dira eta arreta osoaren printzipioetan oinarritzen dira. "Pertsona batek gidatuko du saioa, Ibon Sarasola Monzonek hain zuzen ere. Ingurumen hezkuntzan egiten du lan berak eta zentzumenen bitartez naturarekin konektatzen lagunduko die parte-hartzaileei", argitu digu Violeta Toran Basona elkar-teko kideak. "Ez da trekking saioa izaten, ariketa lasaia goa izaten da, eta ez da distantzia luzerik egiten. Ez da, ezta ere, landareak edo animaliak identifikatzeko saioa izaten, argitu digu.

Baso bainuen kontzeptua berria izan daiteke askorentzat, baina ez estutu horregatik. "Ez dago modu egokirik edo okerrik baso-bainuak egiteko, bakoitzak bere moduan

egiten du eta ondo egongo da", zehaztu digu Basonako kideak.

Olabeko zelaian egin behari ziren saioak publiko orokorrari zuzenduta egongo behar zirene eta, horregatik, ez zuten gomendatzen zazpi urtetik beherakoentzat. "Ez eurek baso-bainuak egin ezin dituztelako, baizik eta bi orduko saioak izan behar zirenez, zaila delako denbora gutxi horretan euren arreta deitzea eta esperientzia behar bezala bizitzea", argitu digu Toranek. Hala ere, Basonak saio espezifikoak antolatatu ohi ditu hartzaileen ezaugarrien arabera eta umeentzako saio bereziak ere prestatu ditzakete.

Onura fisiko, mental eta sozialak
Baso-bainuak 1982an hasi ziren Japonian praktikatzeko, biztanleriaren estres-maila murrizteko diseinatutako osasun programa nazional baten barruan. Japonieraz Shinrin-yoku izena dute (baso- eta natura-bainuak da bere itzulpen literala euskaraz) eta naturarekiko komunikazioa zentzumenen bi-



Naturarekin esperientzia sensoriala bizitzeko aukera ematen du Basona elkarteak. BASO-BAINUAK

dez sustatzen dute. Izan ere, kasu honetan basoan egingo bada ere, edozein ingurune naturaletan egin daiteke praktika hori.

Eibarko saioaren bitartez jendeak baso-bainuen inguruan informazioa jasotzea eta esperimentatzea nahi zen, baina saio bakarra izan arren, zenbait onura atzemaiteko balio zezakeen. “Saio batean onurak atzeman daitezke, baina onurak ondo igartzeko, 8-12 astez, astean behin bi orduz saioak izatea litzateke egokiena”, Toranen ustez. Basonak horrela jarduten du eta proiektu bereziak ditu estres-maila altua duten irakasleentzat eta bazterkeria egoeran dauden emakumeentzat, besteak beste.

Onurak hiru arlotan ematen dira. Arlo fisikoari dagokionez, immunitate-sistema sendotzen du, tentsio arteriala orekatzen du, osasun kardiobaskularra hobetzen du eta sedentarismoa saihesten du ariketa fisikoa sustatuz.

Arlo mentalari dagokionez, estresa kudeatzen laguntzen du;

depresio eta antsietate egoerak txikiagotzen ditu; gogo-aldartea eta energia hobetzen ditu; buruko nekea arintzen du; eta kontzentrazioa, memoria, sormena eta intuizioa bezalako trebetasunak zorrozten laguntzen du.

Arlo sozialari begira, azkenik, talde barruko pertsonen arteko harremanak hobetzeko balio du eta gizarte-kohesioa eta pertsonen arteko elkarrekintza sustatzen ditu.

Basoen balioa

Esan bezala, horrelako ekintzak edozein ingurune naturaletan egin daitezke; baina, edozein tokitan eginda ere, naturak duen balioari indarra emateko balio du. “Ondo dago naturaren inguruan berba egitea eta abar, baina batzuetan teoria gutxiago eta natura gehiago aprobetxatu behar dugu”, diosku Toranek. Horrela, ‘Baso-bainuak’ moduko ekintzek gure ingurunea gehiago zaintzeko eta horren inguruan kontzientzia gehiago zabaltzeko balio dezakete.

Baso-bainuak Japonian praktikatzen hasi ziren, 1982an, biztanleriaren estres-maila murrizteko asmoz

Baso-bainuak naturan oinarritutako ongizate praktikak dira eta arreta osoaren printzipioetan oinarritzen dira

AMAIA ELIZARAN • Dantzari eta koreografoa

“Emankizun bakoitza ezberdina, bakarra izaten da”

Amaia Elizaran (Tolosa, 1992) dantzari eta koreografoa eta Liam Ó Maonlaí (Dublin, 1964) musikariak sortutako “Arima” ikuskizuna ikusi ahal izango da bihar, 20:00etan, Coliseo antzokian. Zerbait amaitzen denean lagatzen duen aztarna, hori da dantzariak azaleratu nahi duena lan honetan, “atzean geratzen den arrastoa”.



Dantzari tolosarra zuzeneko musikarekin arituko da.

Nolakoa da “Arima” ikuskizuna? Nola sortu zen?

Zuzeneko musikarekin egiten dugun dantza garaikide ikuskizuna da. 2020an Irlandara, Galway-ra, joan nintzen, hizkuntza minorizatueta hainbat kultura batu zituen arte eszenikoen inguruko proiektu batean parte hartzera. Han geundela COVID-19a ailegatu zen eta, lantaldean egon behar zuen batek ezin izan zuenez bidaiatu, Liam Ó Maonlaí musikari irlandarra etorri zen bere ordeiz. Bere musika entzun eta berehala sortu zen horrelako konexio berezi bat bion artean eta elkarrekin zerbait egin behar genuela pentsatu nuen.

Aurretik egindako lanekin alderatuz gero, badu berezitasunik?

Nire seigarren pieza da, baina hasierakoak pieza laburragoak ziren, kalean eskaintzeko pentsatutakoak. Aurretik egin dudan beste pieza luzea, “Mar” izenburukoa, oso matematikoa zen. “Arima”-k, berriz, ezaugarri oso zehatzean oinarrituta egon arren, inprobisaziorako aukera ematen dit. Liamek jotzen dituen atmosferak? eta instrumentuak ez dira aldatzen, baina nire dantza pausuak ez dira beti berak izaten, aldatzen joaten naiz. Beraz, emankizun bakoitza bakarra, ezberdina izaten da, eta asko gozatzen dugu biok.

Betidanik dantzatu izan duzu?

Jaio nintzenetik. Hiru urterekin balleta ikasten hasi nintzen, sasoi hartan Tolosan dantza garaikidea eta horrelakorik ikasteko aukerarik ez zegoen eta 16 urterekin Madrilera joan eta dantza garaikide espezialitatean graduatu nintzen. Gero Londresera joan nintzen lanera eta, handik bueltan, 2015ean nire proiektua hastera animatu nintzen eta horrela sortu zen konpainia. Harrezkero zazpi urte pasatu dira eta hemen jarraitzen dugu; beraz, badirudi asmatu nuela.

Lantaldean Maria Romero Laspiur eibartarra dagoe-la ikusi dugu...

Aspalditik ezagutzen dugu elkar, berak egiten dituen belarritakoak izugarri gustatzen zaizkit eta. Lan honetarako oso oso polita den eszenografia sortu du, oihal batekin textura ezberdinak lortuta...



Sutegi Antzerkiak “Las aventuras del buen soldado Svejk” aurkeztuko du gaur

“Las aventuras del buen soldado Svejk” antzezlanaren esainiko du Ermuko Sutegi Antzerkiak gaur, 19:00etan, Coliseo antzokian. Lehen Mundu Gerran kokatutako alegatu antibelizista honen zuzendaria Juanma Rodríguez da eta antzezleak, berriz, Garazi Beitia, Ainhoa Carmona, Manu Carrillo, Ayose Cruz, Ángel Gutti, Ricardo Izagirre, Piedi Kortazar, Pilar Medina eta Sindy Otero. Ermuko antzerki eskolakoez gogoz ekin diote proiektu honi, jendeari ondo pasatzeko aukera emateko. Sarrerak 5 euro balio du eta leihatilan bertan erosteko aukera dago.



Sostoa eta Oñati abesbatzen kontzertua Karmelitetan

Sostoa abesbatzak Oñati abesbatzarekin batera bihar emango duen kontzertuan Aita Madinaren “Tantum ergo” kantuen Europa mailako estreinaldia egingo du. Kantu horrez gain, beste hamaika ere eskainiko dituzte, Mirengu Plazaolak zuzenduta. Karmengo Amaren elizan, 19:00etako mezan abestu ondoren hasiko da kontzertua, 20:00etan. Maiatzaren 1ean kontzertu bera Oñatin emango dute.

Irakurzaletasuna sustatzeko “Jirabira” jolasa hasi da

Astelehenean abiatu zuen Liburutegiak “Jirabira”, irakurketa bultzatzeko jolasa. Parte hartzeko liburutegiko bazkide izan behar da eta LHko 1. mailatik aurrerakoek jolas dezakete, liburu bat irakurri eta fitxa bete ondoren. Erruleta biratu eta galdera erantzun behar da (liburua euskaraz bada, birritan bota daiteke). Parte-hartzaile guztientzako detailtxo bat egongo da eta puntu gehien lortzen dituenarentzat, berriz, saria.

I. Mercedes Kareaga Beka



Mercedes Kareagaren biografia izango da I. Mercedes Kareaga Bekaren ikerketa-gaia. Bekaren zenbatekoa 9.000 eurokoa izango da eta proposamenak maiatzaren 1etik aurrera aurkeztu behar dira Udalaren webgunean, maiatzaren 30era arte. Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz egin behar dira. Informazio guztia Interneten dago eskuragarri.

Eguen Zuri argazki erakusketa

Atzo banatu zituzten XXIV. Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak: Pedro Arriolaren “Ausartak”, Maite Beistegiren “Joalduna” eta Fernando Solanaren “Let’s rock” izan dira edizio honetako irabazleak. Arrate Kultur Elkarteak antolatutako lehiaketara aurkeztu diren 20 lanak maiatzaren 1era arte egongo dira ikusgai, Topalekuan.



Gerraren kontrako irakurketa saioa gaur 19:00etan Portalean

Juan San Martin Udal Liburutegiak “Hitzak, liburuak eta liburutegiak gerren kontra” izenburuko poema eta testu irakurketa-saioa antolatu du gaurko (barixakua), 19.00etan Portalean. Narratzailea Izaskun Asua izango da eta testuak eta poemak irakurtzen, berriz, Idoia Carramiñana eta Maite Lorenzo arituko dira. Testu batzuk euskaraz izango dira eta beste batzuk gazteleraz.



AURKITU 10 DESBERDINTASUNAK

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



LOTUIZU JABE BAKOITZA BERE TXAKURRAREKIN

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

					1
	1		5	2	6
7	2	5	8		
9	8		4		7
					3
3	4		7	2	5
			4	3	5
1	3		6	4	
5					

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	8	6		2	7			
5		7			4		9	
					6			1
				6			3	2
		8				9		
2	4			9				
1			6					
	6		7			3		9
			5	8		1	6	

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z

soluzioa

Apirilak 8/21

BARIXAKUA 8

ZINE-FORUMA

19:00 "Hitzak, liburuak eta liburutegiak gerren kontra" gerraren kontrako testu eta poemak. Portalea.

ANTZERKIA

19:00 "Las aventuras del buen soldado Svejk" (Sutegi Antzerkia). Coliseo.



DANTZA

20:00 "Arima" (Amaia Elizaran). Coliseo.



KONTZERTUA

22:00 Porfiria eta Nakkiga metal taldeak. Eibarko Gaztetxea.

DOMEKA 10

TXIRRINDULARITZA

09:30 51. Valenciaga Oroitzarrea. Untzagatik Azitaineraino.



MEZA

10:30 Erramu bedeinkapena eta prozesioa. Azitaingo eliza.



KALEJIRA

10:30 Usartza Txistulari Banda. Ipuruatik.



KONTZERTUA

12:30 Eibarko Musika Banda. Coliseo.



KONTZERTUA

18:00 Tugurio eta The Covenant metal taldeak. Eibarko Gaztetxea.



EGUENA 14

MEZA

18:00 Eguen Santuko meza. Azitaingo eliza.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 30era arte:

- **EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA.** (Portalea).
- **EIBAR BHI-ko artistak.** (Portalea).
- **"HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA"** (Eibarko Armagintzaren Museoa).
- Maiatzaren 1era arte:**
- **"XXIV. EGUEN ZURI" argazki erakusketa.** (Topalekua).

Eskualdeko Agenda

SORALUZE

KONTZERTUA

8an (barixakua) / 19:00 Plaza Zaharreko karpaa. "Dupla". Agin Laburu eta Eli Pagola. Korrika Kulturala.



ERMUA

KONTZERTUA

8an (barixakua) / 20:30 Lobiano Kulturgunea. Paula Matheus.



DEBA

BARRA KLASIKOA

9an (zapatua) / 12:30 Ibaiko pasealekua. Kulunka Dantza Taldearen erakusketa.

ITZIAR

KONTZERTUA

9an (barixakua) / 19:00 Itziarko eliza. Zarautz Abesbatza.

ZAPATUA 9

TXIRRINDULARITZA

14:05 Itzulia: Eibar-Arrate. Irteera neutralizatua Untzagatik Saturixoraino.



KONTZERTUA

19:00 Meza. **20:00** Sakro kontzertua. Sostoa abesbatza eta Oñati abesbatza. Karmengo Amaren eliza.



FUNEUSKADI
Funerariak

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xullion, s/n, SIGMA Industrialdea (Otaola hilerriaren ondoan)
Eibariko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**Enrique
Arias Vitoria**

2022/04/05



**"Izarren hautsa
bihurtuko zara, baina
zure maitasunaren
distirak betirako
argituko ditu
gure bihotzak"**

- ZURE FAMILIA -

**Isabel
Luengo Mancebo**

2022/03/31



**"Faltan botatzea ez da
hutsik egotea, baizik eta
presente egiten den
norbaitez beteta egotea"**
Altu hegan egin, lagun

- M^{re} Carmen, Lourdes, Mariaje,
Nieves, Pili, Rosa, Mariaje, Karmentxu,
Mari Jose, Maite eta Lourdes -

**Miren Begoñe Maiora
Gonzalez de Audikana**

2. URTEURRENA
2020/04/13



**"Zure alaitasuna
eta maitasuna gure
gogoan daude"**

- ZURE FAMELIXA -

**Fernando
Valenciano Yebra**

2. URTEURRENA
2020/04/08



Zure irribarrea
beti egongo da gurekin.

- ZURE KUADRILA -

**Fernando
Valenciano Yebra**

2. URTEURRENA
2020/04/08



**"Zu joan zinen, baina
GURE BIHOTZETAN
BIZIRIK ZAUDE"**

- ETXEKOAK -

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **AROA** Morquecho, astelehenian 9 urtiak ospatu zenduazelako. Musu potolo bat guztion partetik!



Zorionak, **JULEN**, 5 urte beteko dozuz-eta. Pillua maite zaittugu. Patxua etxekuen eta, batez be, Anderren partez.



Zorionak, **JULENE!!** Eguaztenian 4 urte egin zenduaz-eta. Musu bat amama, aitxitxa, Euker, Paule eta Xuhar-en partez.



Zorionak, **ELENE**, hillaren 16xan 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **IRAIA**, hillaren 6xan 11 urte bete zenduaz-eta. Musu bat famelixa guztiaren,, batez be Aneren partez.



Zorionak, **JULEN!** Heldu da eguna... gaur 8 urte! Musu erraldoi bat aitatxo, amatxo eta Unairen partez. Maite zaittugu!



Zorionak, **MIKEL!** Hillaren 6xan 8 urte bete zenduazelako. Musu bat etxekuen eta, batez be, Lukenen partez.



Zorionak, **LIBE!** Domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Nereren partez.



Zorionak, **MIKEL** Garcia Murgoitio! 7 urte, txapeldun! Jarraitu beti bezain alai. Musu potoluak famelixaren partez.



Zorionak, **LIZAR** Aranberri Zubizarreta, txapelduna! Laister 9 urte beteko dozuz! Muxu haundi bat etxeko danon partez..



Zorionak, **MAITTIK!** Askio maite zaittuegu!

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **9an:** 17:00, 19:45
- **10an:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **11n:** 20:30 (Antzokia)

“Canallas”

Zuzendaria: Daniel Guzman



1 ARETOA

- **9an:** 22:30
- **10ean:** 20:00
- **11n:** 20:30

“La cima”

Zuzendaria: Ibon Cormenzana




2 ARETOA

- **9an:** 19:45, 22:30
- **10ean:** 17:00, 20:00
- **11n:** 20:30

“Llegaron de noche”

Zuzendaria: Imanol Uribe



ANTZOKIA

- **9an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **10an:** 17:00

“Orkestra lurtarra”

Zuzendaria: Imanol Zinkunegi



Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu eguzkitsua salgai Jardifenta kalean. 2 logela, trasteroa. Garajearekin. Tel. 610890474.

1.2. Errentan

- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 631907807.
- Logela alokatzen diogu neska bati. Sukaldea eta egongela konpartitzeko aukera. 350 euro (gastu guztiak barne). Tel. 602051567.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Txabola traspasoan Ipuruia inguruan. Terrenoarekin. Tel. 649258913.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 655991987.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631787654.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, zaintzaile bezala eta eraikuntzan jarduteko. Tel. 641055198.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 624669425.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta emakumeak edo umeak zaintzeko. Ziurtagiri sozio-sanitarioa eta autoarekin. Tel. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. 8 urteko esperientzia. Tel.

643574998.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia, erreferentziak eta zaintzeko habilitazioarekin. Tel. 604120104.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez haurrak eskolara eramateko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. Tel. 648625209.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiei laguntzeko, maskotak pasiatzeko eta errekaduak egiteko. Tel. 642030121. Luis.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 685640344.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta oporretan ere. Interna. Tel. 643584198.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauetz asteburuetan ere. Orduka. 14 urteko esperientzia tabernan. Tel. 677452547 eta 632419944.

4.2. Langile bila

- Kirol teknikaria behar da. Baldintzak: euskara jakitea eta aquabike, aquafitness eta igeriketara ikastaroak emateko ikasketak izatea. Tel. 688610620. Bidali curriculum: eibarigerixan@gmail.com
- Neska euskalduna behar da Eibarko hortz-klinika batean arretera zerbitzua eskaintzeko. Bidali curriculum: miren-txu2000@yahoo.es
- Zerbitzaria behar da tabernarako. Esperientziarekin. Jornada osorako kontratua. Tel. 627412431.

- Estetika zentro baterako langilea behar da. Ezinbestekoa euskeraz jakitea. Bidali curriculum: olamarsan@gmail.com
- Eskarmentudun sukaldari-laguntzailea behar da. Ezinbestekoa autoa izatea. Sukaldaritza orientalean esperientzia izatea baloratuko da. Tel. 670672515.
- Kamarera/o behar da asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. Tel. 659539861.
- Nagusi bat zaintzeko pertsona behar da. Orduetgia: 09:30-11:30 eta 20:30-21:30. Derri-gorrezkoa akreditazioa izatea eta janaria prestatzen jakitea. Tel. 646206088.
- Esperientzia duen sukaldaria behar da. Tel. 676081717.
- Esperientzia duen saltzailea behar da merkataritzarako. Tel. 676081717
- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaitez: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>
- Ileapintzailea behar da Eibarren amatsun baja bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculum Bidebarrieta 16an.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitatea prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

DESKANTSU DENDA berria Eibarren, ospitale parean.



- Koltxoak
- Ohe-oinarriak
- Tapizatuak
- Sofak
- Relax besaulkiak (bata motordunak ere)
- Oheko arropa
- Osagarriak.

Kalitatea, danon eskura.

Irekiera promozioak, **%20ko** deskontuak hainbat produktuetan.



☎ 943 903 002 ☎ 652 407 141

@ otaola_descanso

Otaola hiribidea, 13 - EIBAR

OTAOLA

DESKANTSU DENDA / TIENDA DE DESCANSO



zarelakopara

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Tfnoa / emaila _____

NAN _____

Jaiotze data _____

K/K zenbakia _____

eta kitto!
euskara elkartea

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76

elkartea@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontozian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com